

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2013/06/06	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 17:00 - 17:40	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

BILDU EZ DIREN Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
UDALKIDEAK: Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

BERTARATZE Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.
ETA IRTEERAK:

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi eta ongi etorri Pleno berezi honetara. Azkar pasa da urtebete, iaz hemen elikadura jasangarriari buruz hitz egiten aritu ginenean eta bazatozte ostera, beste erronka garrantzitsu bati helduta: Bioaniztasuna.

Gogotsu nago zuek, Arrasateko etorkizuna zareten neska-mutilek, hain potoloa den gai honi buruz zer hausnarketa egin duzuen jakiteko. Baina, batez ere, zuen proposamenak entzuteko interesa daukat, hemen, udaletxean, lan egiteko oso lagungarriak izaten baitira.

Den denei eskertu nahi dizuet urte osoan zehar hartu duzuen lana eta bioaniztasuna aztertzen egindako ahalegina. Tira, gehiago luzatu barik, ondo iruditzen bazaizue, plenoari hasiera emango diot. Zuen da hitza!

1.- 2012/2013 ESKOLAKO AGENDA 21: ONDORIO, PROPOSAMEN ETA KONPROMEZUEN DOKUMENTUAREN AURKEZPENA (BIOANIZTASUNA PROIEKTUA).

Arizmendi (Gaztelupe): Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok Arrasateko Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo Gunea, Arimazubi Gunea, Sta Teresa Gunea eta Gaztelupe Gunea) ikasleak gara. Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

Arrasate Herri Eskola:

Duela 10 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak, elikadura jasangarria eta aurtengoa bioaniztasuna.

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa hemen zerrendatzen ditugu jarduerak:

Arimazubi: ENEKO PEREDA:

- Gaiaren aurkezpena egin genuen kurtso hasieran, bideo batzuk ikusi genituen bioaniztasunaren gaia hobeto ezagutzeko. Kontzeptua ondo ezagutzen dugu orain.
- Ortuaren proiektua aurrera eraman dugu; Iaz elikadura jasangarria landu genuenean Garagartzako ortuetara joateko aukera izan genuen eta aurten zentro batzuetan ortuak prestatu ditugu eta dagoeneko gai gara gure produktu ekologikoak lortzeko.

Institutua:

- Konposta egiten dugu: zentro batzuetan konposta egiteko tresneria dugu eta sobera dugun materia organikoarekin konposta ateratzen dugu, oso baliagarria da gero gure ortuetarako.
- Birziklatzea lantzeko tailerrak egin ditugu: aluminioa, plastikoa eta paperen ontziak geletan jarri ditugu. Musika tresnak egin ditugu birziklatzeko material horiez, eta horietatik musika ederra atera dugu.

Institutua: ANDONI VALOR

- Zentro batzuetako landareen inbentarioa egin dugu. Gure inguruan zein nolako landaredia dugun ikusi dugu eta horren garrantziaz jabetu gara.
- Gure zentroetako diagnostikoa egiteko inkesta batzuk bete ditugu guztion artean eta ondorio interesgarriak atera ditugu. Zentroetan txoko berdeak sortu ditugu.

Gazteluondo: OLAIA CALVO

- “Aula de energia” web orrian artikulua idatzi ditugu eta “Lur baratza.Blogspot.com” bloga sortu dugu.
- Udalako Ingurumen Eskolakoekin hainbat lan egin dugu: herritarren artean galdetegiak egin ditugu, emaitzak aztertu eta arazoak konpontzeko proposamenak atera ditugu .
- Udala auzoan ditugun ekosistemak aztertu ditugu: artadia, landazabala eta egur landaketak, habitat horietan bizi diren animaliak zein landareak ondo ezagutu ditugu eta errespetatzeko kontzientzia hartu dugu. Udala auzoko animalien oinatzak identifikatzen ikasi dugu.

Gazteluondo: EIDER LUCERO

- Herriko hainbat berdegunetan, gure ikastetxeetatik gertu, kabi kutxak jarri ditugu; inguruko txoriak ezagutu ditugu eta bioaniztasunerako zein-nolako garrantzia duten azpimarratu dugu.
- Herriko berdeguneak bisitatu ditugu (Santa Barbarak eta Monterronek gordetzen duten Bioaniztasuna ezagutu dugu). Hemengo zuhaitzak identifikatzeko hostoekin horma irudi bat egin genuen, lupekin animalia txikiak ikusi, eta prismatikoekin hegaztiak behatu ditugu.

Gaztelupe: IRENE PEREIRA

- Zuhaitz egunean egindako zuhaitz landaketan parte hartu dugu batzuk eta ibaiertzeko landaredia hobetzeko aukera izan dugu. Ekintza honetan ere errepide ondoan landareak jarri genituen kotxeen zarata maila gutxitzeko.
- Hainbat taldek ingurumen astea antolatu dugu eta ingurumena ezagutu eta errespetatzeko ekintzak egin ditugu.
- Kurtzetxikiko hariztia eta artadia aztertzeraz joan gara, herrian dugun mendi horretako bioaniztasuna ezagutzera.

- Monterroneko hariztia ere ezagutu dugu eta baita beheko berdegunean dauden espezieak, kanpotik ekarritakoak.

Arrasate Herri Eskola:

- Gure ikastetxe inguruko zuhaitz garrantzitsuenak ezagutu ditugu, gaur egun gutxi daudenak: haritza eta artea.
- Herri kaleetako bioaniztasuna zein den ere aztertu dugu.
- Aramaio errekek eta Deba ibaiak osatzen duten ekosistemak ezagutu ditugu; dauzkaten arazoak eta konponbideak.

Arrasate Herri Eskola:

- Hemengo zuhaitzen ezkurak batu ditugu udazkenean eta zaintzen ari gara horietatik zuhaitzak hazteko.
- Arrasateko biodibertsitatea zerk kaltetzen duen ikasi dugu.

Institutua:

'Bioaniztasuna' gaia aztertu dugunean konturatu gara arazo asko agertzen direla (gure herriko bizimoduarekin lotutako asko) eta denok egin genezakeela zerbait hori guztia konpontzeko.

Ikasle guztiok parte hartu dugu orain aurkeztuko dizkizuegun ondorio, proposamen eta konpromisoak egiten. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean, eta amaitzeko, hemen aurkeztuko dizkizuegunak ikastetxe guztietako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu.

Santa Teresa:

Hemen aurrean gauden ikasleak lehen aipatu ditudan ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak gara. Orain entzungo dituzuen proposamen eta konpromisoekin Arrasateko bizi kalitatea hobetu nahi dugu, hau da, Arrasate hobe lortzen lagundu nahi dugu.

ARRASATEKO UDALBATZARRERAKO KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK

Gazteluondo: OIER ETXEBESTE: Arrasateko bioaniztasuna aztertzeko ekosistema bat baino gehiago bisitatu dugu eta konturatu gara nahiz eta batzuk oso egoera onean ez egon oraindik bioaniztasun ugari dagoela toki horietan; ekosistema bateko bizidunen artean erlazio sarea dagoenez, bati eragiten bazaio, beste denek ere igartzen dute; gaur egur landaketak kanpoko pinuekin egiten dira, hemengo basoen ordeaz eta, horren ondorioz, herriko azalaren erdia egur landaketak dira. Horregatik, udal honi egiten dizkiogun lehendabiziko proposamenak hauexek dira:

-“Zuhaitz mozketak kontrolatu eta zuhaitzik ez dagoen esparru pribatuetan hemengo zuhaitzak landatzeko laguntzak eskaintzea”

- “udalerriko espazio naturalak zaindu eta babestu, ditugun esparruak mantentzeko arauak jarri”.

- Zorrotz babestu behar dira gelditzen zaizkigun baso naturalak. Bereziki, Udalatxeko artadia eta Kurtzetxikikoak, hauek erasotzen dituzten ekintzak gelditu: mendiko motorrak, egur landaketak, obrak,...

- Artadia handitzeko inguruan arte gehiago landatu behar dira.

Guk gure aldetik menditik goazenean landaretza eta animaliak errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu eta kurtso honetan landatu genituen ezkurak zuhaitz bihurtzen direnean, basora eramatera konprometitzen gara.

Landazabala ekosistema ezagutu dugu Udala auzoan, eta asko gustatu zaigu. Baina hau mantentzeko konturatu gara baserritarrei erosi behar zaizkiela janaria azoketan. Hala ere, nekazaritza ekologikoagoa izan daitekeela ikusi dugu; eta horretarako **Udalak lagundu behar du elikadura jasangarria bultzatzen.**

Arimazubi: IMANOL JUARISTI: Herri erdian bi berdegune handi ditugu: Santa Barbara eta Monterron; herritarrok naturaz disfrutatzen leku paregabeak eta guri oxigenoa ematen digute. Toki hauetan banku eta iturri falta sumatu dugu eta gure hurrengo proposamena hori da: **“udalak berdeguneetan dauden ekipamenduekin azterketa bat egin dezala eta faltan daudenak jartzeko, adibidez informazio panelak”**. Ideia hau ona iruditzen zaigu, baita ere, berdeguneetako bioaniztasuna eta historia ezagutzera emateko Gu noski prest gaude ekipamendu horien erabilera egokia egiteko.

Parke hauetan bioaniztasuna aberatsa den arren, uste dugu hobetu egin daitekeela; adibidez, lehor dauden urmaelak urez betetzen. Horrela ura behar duten animalia asko gerturatuko litzateke; anfibioak, intsektuak, hegaztiak, etab. Gure aldetik urmael horiek zaintzeaz eta zaborrik ez botatzeaz arduratzen gara.

Berdeguneetan hildako egurra egotea ere garrantzitsua dela ikasi dugu, eta horren falta sumatu dugu, gehienbat Santa Barbara eta auzoetako parkeetan.

Ikusi dugu herriko basoak eta berdeguneak oso sakabanatuta daudela beraien artean; beraz, horiek lotzeko zuhaitzak landatu daitezke eta animaliek errepideak pasatzeko pasabide naturalak egin.

Gaztelupe: ENEKO ROTETA: Herriko ekosistemetan bizidun batzuen egoera ez da oso ona. Gure inguruan obra erraldoiak ditugu gaur eta askotan oso kaltegarriak biodibertsitatearentzat, ekosistema ugari suntsitzen dituzte. Gure udalari eskatzen diogu **“azpiegitura horien jarraipena egiteko, bioaniztasunaren kontrako jardueren aurrean salaketak egiteko eta azpiegiturak egin aurretik ondo pentsatzea ea beharrezkoak diren”**. Gure aldetik antolatzen diren biodibertsitatearen aldeko ekintzetan parte hartuko dugu.

Institutua: MIKEL AZNAREZ: Bioaniztasunaren galeraren arrazoietakoa bat espezie inbaditzaileak dira. Espezie hauek beste lurralde batetik heldu eta bertan azkar hedatzen hasi dira; gure ekosistemen egitura nahiz funtzionamendua aldatu egiten dute eta kalteak sortzen dituzte. Egoerak horrela jarraitzen badu, gero eta gehiago hedatuko dira, eta Arrasateko bioaniztasuna galarazi. Arazoaren aurrean Udalari proposamen hauek egiten dizkiogu:

- “Espezie inbaditzaileen inguruan bizidun asko daudenez, produktu kimikoak ez erabiltzea eta agian komenigarriena da landareen kasuan sustraietatik kentzea”,
- “Landare inbaditzaileak zabaltzeko oztopoak jarri behar dira eta bat izan daiteke hemengo landareak landatzea; adibidez haltzak ibaiertzean edo haritzak basoetan”,
- “Monterron parkean dauden sasi-arkazia batzuk kentzeko, asko ikusi dugu eta”

Arrasate Herri Eskola: MALEN ALTUBE: Badago gure inguruetan beste espezie berri bat oso kaltegarria dena: Asiako liztorra, honi aurre egiteko “liztor horren habiak kentzea eta herritarren artean informazioa zabaltzea”.

Guk gure aldetik gure maskotak ez ditugu askatuko naturan (dortokak, arrainak,,,) eta Asiako liztorraren habiak ikusiz gero, Udalari abisatuko diogu.

Gazteluondo: NAIÁ BADIOLA: Herriko ibaiak aztertu izan ditugu eta konturatu gara azken urteetan ekosistema horietako bioaniztasunak hobera egin duela. Hainbat lekutan ibaiertzeko landaretza berreskuratzen ari da, baina ez da nahikoa. Espezie inbaditzaileak ere ikusi ditugu zonalde horietan eta hori oso kaltegarria da. Oso egokia ikusten dugu “Udalak ibai ertzeko landaretza hobetzeko neurriak hartzen jarraitzea; oso garrantzitsua da ibai ertzeko landaretza errekerperatzea eta inbaditzaileak kentzea” ,

“gure ibaietan hemengo arrainak askatzen hastea” eta “ibai ertzetan paretak jarri beharrean zuhaitzak landatzea”.

Arrasate Herri Eskola: Bestetik, gure ibaietako urak gero eta garbiago daude, duela gutxi zabaldutako araztegiari esker, baina askotan zabor solidoak ikusten ditugu, hemen egokia litzateke “noizbehinka ibaiaren garbiketa antolatzea” eta “ongi kontrolatzea batzuetan gertatzen diren isurketa toxikoak”; gu prest gaude ibaiaren garbiketan parte hartzeko.

Institutua: Errekei buruz eta euren egoerari buruz jendeak gutxi dakiela uste dugu. Askotan herritarren jarduerak kaltegarriak izaten dira eta ez da nahita egiten, baizik eta informazio faltagatik. Guk proposatzen diogu udal honi “ibaien garrantziaz herritarrak informatzea eta horretarako hainbat ekintza antolatu: araztegi bisitak, hitzaldiak, erakusketak, erreka inguruan ibilaldiak,...”, guk antolatutako ekintzetan parte hartuko genuke.

Arimazubi: Arrasateko kaleetan ez dago bioaniztasun handirik. Lorontzietan eta kaleetako errotondetan kanpoko espezie asko dago, askotan bizitzeko ur asko eta zainketa asko behar direnak. Udalari eskatzen diogu “Lorategi berrietan hemengo zuhaitzak landatzea, fruta-arbolak badira hobe eta animaliak erakartzeko gordelekuak jartzea: txorientzat habiak, saguzarrentzat,... Lorategi batzuetan ere barazkiak landatu daitezke ortutxoak sortuz”. Gu prest egongo ginateke ortutxo txiki horiek zaintzeko behar duten laguntza emateko.

Santa Teresa: Bukatzeko, kaleetan autoen esparruak mugatu beharko lirateke, berdeguneen eta denon onerako. Azkenik, ikusi dugu zaborra leku askotan dagoela; horregatik uste dugu zaborra lurrera botatzen duenari isunak jarri beharko litzaizkiokeela.

ESKERRIK ASKO ZUEN ARRETAGATIK !

INAZIO AZKARRAGAURIZAR: Txalo bero bat. Eskertu nahi dizuet urte osoan hartu duzuen lana eta bioaniztasuna aztertzen egindako ahaleginagatik orain guri tokatzen zaigu planteatutako gai guztiak aztertu eta erantzutea eta mahaiari gaudenean aldetik zerbait aportatzea nahi badugu ointxe da momentua.

JOSU PEREDA (BILDU): Nik idatzi txikitxo bat gertatu dut aurretik jakin banekixelako zuen eskaerak zeintzuk zien eta horietariko batzuei erantzuteko. Izenburua jarri diot: Gure altxorrek ez ukitu”

Lurra izena duen planetan izaki asko gara. Izurrite edo plaga handi bat. Gaur Arrasatek betetzen duen eremua gizakia hainbeste ugaltu aurretik nolako izango ote zen? Naturan oraindik orekan zegoela Arrasate inoiz imaginatu duzue? Nolakoa izango ote zen? Udalatxeko artadia noraino helduko zen?

Gutxika-gutxika, mendeak pasa ahala ondare natural hori desagertuz joan da. Egon zitekeen edo izan zen guztia hartatik geratzen zaigun bakarria Udalatxeko artadia. Eta zergatik kontserbatu da gaurdaino bakarrik artadi hori? Erantzuna sinplea da: gizakia bertara heldu ez delako.

Aramaion dioten moduan, “urrineko egurrak ez du baliorik” lana beste ezer baino gehiago delako. Horri esker dugu Udalatxen gaur egun artadia, ez zen bestela gure garaietara helduko eta ointxe ari gara udalean hain zuzen ere Arrasateko lur hiritatezinaren planeamendua berraztertzen. Orain jarriko dira hurrengo urteetarako oinarri izango direnak. Gure indarrak Arrasaten ditugun altxorrek babestera bideratuko ditugu, hori da gure asmoa.

Teknologian oinarritzen den gizarte honetan natura ustiatzeko bitarteko itzelak ditugu. Horri gizakiak dituen ia mugarik gabeko bitartekoei gure ustez freno jarri beharrean gaude. Bestela esanda, gaur egun ez dago urrineko egurrik, edonora hel daitekeelako gizakia eta horri neurria jarri ezean gureganaino heldu diren balio handiko gune honek desagertuko direlako. Galtzen diren balio handiko espezie eta habitatak galtzen direnean betirako galtzen dira. Ez da izaten atzera bueltarik eta mundua etengabe eboluzionatzen ari den organismo biziduna izanik, nolakoa izango den etorkizunean ere ez dagolako jakiterik. Izate batetik gatoz baina nora goazen ordea inork ez daki. Zein norabide izango duen susmoak gehienetan negatiboak izan baditugu arren. Gaur hemen bota dituzuen eskaera asko eta asko martxan daude aspaldidanik: landare inbaditzaileen kontrola, erreka ertzetako landarediaren babes, liztorren inguruko kanpaina orain bukatu berri da.

Beste eskaera batzuen konpetentzia, azpiegitura handiena aipatu delako, gure eskuetatik kanpo dago eta ezer gutxi egin ahal izango dugu udaletik. Baina bai dira egingarriak diren eskatu dituzuen beste batzuk. Esaterako, erreken garbiketa, horretarako erreken astea antolatzen ari gara udazkenerako egun bat auzolanean erreka garbiketa eginaz, herriko lorategi batzuk ortu bihurtzearen eskaera ere aztertu eta bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Eta amaitzeko esan, Udalako Ingurugiro Eskolak horretan orain arte bezala segi dezala. Gai hauek lantzen, aurrera eginez, kontzientziazio eta sentzibilizazioa jorratuz. Horixe da etorkizun hobe bermatuko digun ekintza bakarria. Zorionak berriro eta eskerrik asko zuen lan eta urteroko ekarpenengatik guztioi ikasle, guraso eta irakasle zeraten guztioi.

ARITZ ARRIETA (PSE-EE): Arratsaldeon eta ongi etorriak Udaletxeko Pleno Aretora, eta zorionak egindako lana eta egindako hausnarketagatik. Zuek esaten duzuen moduan, danon lana da bioaniztasuna zaintzea, eta ez bakarrik udaletxeak eta instituzioak hartu behar dituzte erabakien bitartez, baizik eta egunez egun danok egiten ditugun akzioen bitartez. Beraz, ea danok garen kapaz gure ingurunean ditugun aberastasunak, hau da, aberastasun ekologikoak behintzat dauzkagun moduan mantentzen eta bioaniztasun hori hobetuz joaten garen, ahal den neurrian. Aurrerantzean datozenak ere ezagutu ditzaten guk ezagututako aberastasun hauek eta ezagutzen ditugun moduan ikusteko. Beraz jarraitu lanean orain egin duzuen moduan, danontzako delako onuragarria egiten duzuen lana. Eskerrik asko.

JUAN KARLOS GARITANO(EAJ-PNV): Arrasateko ikasle eta irakasle guztioi, eta bereziki hemen ordezkatzeko dituzuenok Arizmendi ikastola, Arrasate Herri eskola eta Institutua, esker mila eta zorionak aurten lan hau gauzatu duzuenoi, bioaniztasunari babes emanaz. Gai honek benetako garrantzia du ekosistemaren bizia ikasi dugulako errespetatzen eta kontzientzia hartzen.

Alde batetik Udalaiz beheko artadia, Kurtzetxiki eta Monterroneko ariztiak, landa zabalak eta berdeguneak. Bestetik habitat horietako bizi diren animaliak eta Aramaio edo Deba ibaietan bizi direnak. Bestetik herri kaleetako bioaniztasuna ere azpimarratzekoa da hainbat arraza desberdinetako pertsonak bizi direlako gure artean.

Asko izan dira zuek egindako lana eta aktibitateak, adibidez, hemengo zuhaitzak identifikatzeko hostoekin horma irudi bat egitea, luparekin animali txikiak ikustea, prismatikoekin hegaztiak behatzea etab. Hala ere, bioaniztasuna aztertzean konturatu zarete arazo asko agertzen direla gure herriko bizimoduarekin lotuta daudenak eta denok zerbait egin beharra daukagula hori guztia konpontzeko.

Bioaniztasuna ingurumen lehentasunezko erronka bat da, lurreko bizitzaren aukera zabala bezala ulertuta. Guk hartzen dugu konpromisoa zuen eskaerak aurrera ateratzeko zuek zarete Arrasateko etorkizuna. Animo eta jarraitu horrela.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Adituek diote etorkizunean bi planeta beharko ditugula bizitzeko orain bezala naturak emandako baliabideak xahutzen jarraitzen baldin badugu. Baina ez da halakorik gertatuko, hasi garelako apurka-apurka ohiturak aldatzen eta denbora galdu barik denok ikasiko dugulako natura errespetatzen.

Eta esan beharra daukat zuei entzundako hitzek asko poztu nautela, nabari delako txikitatik ondo asko dakizuela bioaniztasunaren gaiak zelako garrantzia duen eta gaurtik hasita fin-fin arituko zaretela Arrasate zaintzeko ohitura sanoak bultzatzen.

Begi bistan dago aurten ere lan asko egin duzuela; a ze nolako azterketa egin duzuen Arrasateko bioaniztasunari buruz eta, gainera, ezin hobeto azaldu diguzue hemen gauden zinegotzi, irakasle eta gurasooi. Eskerrak eman nahi dizkizuet gaur denoi eman diguzuen lezioagatik!

Ateratako ondorio asko zinez interesgarriak iruditu zaizkit eta esan behar dut oso ikertzaile onak zaretela; arazoak ondo azpimarratu dituzue, eta ez dira gutxi: landare inbaditzaileen arazoa, Asiako liztorraren arazoa, gure basoen desagertzea...

Gure ibaiak aipatu dituzue eta, arazoia duzue, jendeak batzuetan gauzak txarto egiten ditu baina ez nahita; gure errekei buruzko informazio on bat ematea derrigorrezkoa da eta hori ondo aipatu duzue.

Bai, argi dago denon artean soluzioak bilatu behar ditugula eta martxan jarri behar dira. Zuek esandakoak entzun ondoren ez dugu zuek bezala, gogotsu, jarduteko aitzakiarik.

Bukatzeko, azpimarratu nahi dut Arrasateko Udalak aspaldi hartu zuela Arrasate jasangarriagoa bihurtzeko konpromisoa eta, orain, sekula baino konbentzimendu handiagoz ari garela bide horretan lanean. Zuek gaur hemen egin dizkiguzuen ekarpenak oso baliagarriak izan daitezke eta nik udal departamentuetara eramango ditut, teknikariek eta politikoez aztertu ditzaten. Ondoren, ziur nago, hainbat neurri hartuko dira.

Denok hartu behar dugu konpromisoa eta elkarrekin lan egin behar dugu geure ohitura txarrak aldatzeko. Zuek hasita duzue bide hori eta nik horrela jarraitzeko animatzen zaituztet.

Eskerrik asko, zorionak eta segi horrela!

Gaurkoan ba horrela ematen diogu bukaera gaurko Plenoari.”

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 17:40etan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2013ko ekainaren 6an

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

Inazio Azkarragaurizar Larrea